

zer berri? :



barrendik 200-300

1A maila

ikaslearena

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Parte-hartzaileak: **Maidor Barandiaran** (AEK)
Errealizazio didaktikoa: **Xabier Elortza** (HABEko teknikaria)
Alex Mungia (HABEko teknikaria)
Agurtzane Maiz (HABEko teknikaria)

© HABE 2004. ISBN: 84-95827-67-0

Legezko Gordailua: VI-361/04

Inprimaketa: Imprenta SACAL

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeari (AEK) materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Iñaki Gozalo, Iosu Mitxelena** eta **Jose txo Sastre**.

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

- Albiste laburrak. Berria egunkaria. 2003-10
- *Gaur egun* albistegiko izenburuak. 2003-10-23
- Etsaiak taldeko kide bati elkarrizketa. Bertatik Bertara saioko Agenda atalekoa. 2002-01-08
- Iragarkiak. Doaneko iragarkiak atalekoak. Goierritarra aldizkaria.

zer berri? :

barrendik 200-300

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

1A maila

ikaslearena

AURKIBIDEA

1. Sarrera

- | | |
|-------------------------------|---|
| 1. Lan-egitasmoa | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |

2. Atazak

- | | |
|---------------------------|----|
| A. Ataza: Berriak motzean | 8 |
| B. Ataza: Ikusberriak | 14 |
| C. Ataza: Irakurberriak | 16 |
| D. Ataza: Non, berria? | 20 |
| E. Ataza: Azoka txikia | 25 |

3. Eranskinak

- | | |
|---------------------|----|
| Autoebaluazio-orria | 30 |
|---------------------|----|

1.

LAN-EGITASMOA

Ikastunitate honetan informazioa euskaraz ematen duten komunikabide batzuk izango ditugu mintzagai:

Berria egunkaria, ETB1 eta Goierritarra aldizkaria.

Komunikabide hauek eskaintzen dituzten albisteak, zerbitzuak, iragarkiak... baliatuko ditugu; horietaz jabetu eta jardun ondoren, antzekoak sortzeko: bai ahoz, eta baita idatziz ere.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



ATAZA: BERRIAK MOTZEAN



1

- Albisteak euskaraz irakurtzeko ohiturarik ba al duzu, ala izenburuak bakarrik irakurtzen dituzu?

- Albiste baten izenburua soilik irakurrita, jakiten al duzu zer kontatuko duen?
Irakurri ondorengo izenburua eta esan, zure ustez, albiste horrek zer kontatuko duen. Idatzi ondoko taulan aurreikusten dituzun hiru ideia nagusi.



Izenburua:

Ikasle etorkinen gaineko plana prest dago

Albistearen ideia nagusiak hauek dira:

- 1. ideia:
- 2. ideia:
- 3. ideia:

- Irakasleak albiste-orria banatuko dizue. Bertan dauden albisteak irakurri eta ondoko galdera hauei erantzun zuzena aukeratu.

1. Nork aurkeztuko du etorkinen gaineko plana?
 - a. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Sailak
 - b. Eusko Jaurlaritzako Ongizate Sailak
 - c. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak
2. Nola adierazi du ELN gerrillak bahituak osasun egoera onean daudela?
 - a. Internet bidezko elkarrizketa batean
 - b. Hango misio batek duen irrati bidezko elkarrizketa batean
 - c. Internet bidezko foro batean
3. Non zegoen harrapatutako droga?
 - a. Laranja eta beste jaki batzuen tartean
 - b. Laranja eta bestelako fruituen azpian
 - c. Laranja eta beste jaki batzuen azpian
4. Zenbat denbora egoten dira umeak telebista ikusten, eta zenbat egon beharko lukete?
 - a. Hiru ordu eta erditik gora egon, eta ordu eta erdi egon beharko lukete
 - b. Hiru ordu erditik gora egon, eta ordu erdi egon beharko lukete
 - c. Ordu eta erditik gora egon, eta hiru ordu eta erdi egon beharko lukete
5. Zein da etorkinen planaren ezaugarrietako bat?
 - a. Bizi diren lekutik gertuen dagoen eskola publiko batean sartzea
 - b. Bizi diren lekutik gertu dagoen eskola batean sartzea: publikoa, nahiz kontzertatua
 - c. Bizi diren lekutik gertu dagoen eskola kontzertatu batean sartzea
6. Zein baldintza jarri dute gerrillariak bahituak askatzeko?
 - a. Santa Marta inguruan bizi duten krisi ekonomikoa gainbegiratzea
 - b. Elizaren krisi humanitarioa gainbegiratzea
 - c. Elizak gidatutako misio bateko krisi humanitarioa gainbegiratzea
7. Zenbat droga harrapatu dute urte hasieratik hona?
 - a. Hamalau tona erdi harrapatu dituzte
 - b. Hamalau tona eta erdi harrapatu dituzte
 - c. Hamalau erdi tona harrapatu dituzte
8. Umeek norekin ikusi behar dute telebista?
 - a. Euren geletan, bakarrik, haurrentzako saioak baldin badira
 - b. Euren gurasoekin, edukiaz hitz egiteko
 - c. Euren lagunekin, edukiaz hobeto gozatzeko



- Orain binaka jarrita, lehen irakurritako 4 albisteen zati batzuk berridatziko dituzue.

1. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak plan berri bat aurkeztuko du ikasle etorkinak ikastetxeetan hartzeko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak
.....
.....
..... erabaki du.

2. ELN gerrillari taldea bahiketa amaitzeko prest agertu da

ELN gerrillari taldeak aditzera eman du.

3. Poliziak bi tona eta erdi kalamu harrapatu ditu. Kalamua laranja eta beste jaki batzuen azpian zegoen gordeta.

Poliziak esan du
..... harrapatu dituela.

4. Espainiako Ikus-entzulearen Foroak salatu berri duenez, hurrek telebista asko ikusten dute. Hori gurasoen ardura da.

Espainiako Ikus-entzulearen Foroak salatu du
gurasoen ardura



- Jarraian, albisteetan erabili ohi den aditz-motari erreparatuko diozu. Azpimarra itzazu albisteetan agertzen diren aditzak. Ondoren, talde txikitan jarrita, hitz egin eta ea ondorioz ateratzen duzuen:



ADITZAREN ERABILERA ALBISTEETAN

1.
2.
3.
4.
5. Aditzaren denborari dagokionez:
6. Aditzaren pertsonari dagokionez:
7.
8.

2

Bikoteka, euskaltegiko norbaitengana joan, eta berak entzun duen albiste bitxiena kontatzeko eskatuko diozue. Behar dituzuen oharrak hartu.

Hemen hartu zure oharrak

- Lagun horrek kontatu dizuen albistea idatzi behar duzue. Baina, bakoitzak albistearen zati bana idatzi behar du; batek hasiera, eta besteak bukaera. Hitz egin zuen artean, eta erabaki; nork idatziko duen hasiera, eta nork bukaera.

Hasiera:

Bukaera:



- Biok idatzi dituzuen zatiak elkartu, eta tartean falta dena erantsiz, albiste osorik idatzi. Gogoan izan albiste bat irakurtzera bultzatzeko, izenburu erakargarria ipini behar zaiola. Albistea bukatzen duzuenean, beraz, izenburua idatzi.

Izenburua:

Albiste:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Zer moduz moldatu zarete albiste idazterakoan? Erantzun ondoko bi galderei.

1. Albiste idazterakoan zailtasun hauek izan ditugu:

2. Albiste idazterakoan erraz moldatu gara honetan:

- Jarraian, trukatu zuen albiste beste bikote batek idatzi duenarekin, eta erantzun ondoko galderari.

Zer alde dago zuek eta besteek idatzitakoaren artean?

ATAZA: IKUSBERRIAK



1

- Euskal Telebistako *Gaur egun* albistegiko irudi batzuk ikusiko dituzue, ea asmatzen duzuen izenburu bakoitzaren gaia zein den.
- Bi taldetan banatu, eta hitz egin zuen artean.
 - Bat etorri al zarete gaietan?
 - Irudimena erabili behar izan al duzue?
- Ondoren, albistegi horretako izenburuak entzungo dituzue. Bi taldetako lagunekin bikoteak egin, eta aurreko jardueran egindako aurreikuspenetan zertan asmatu duzuen eta zertan ez hitz egingo duzue.
- Gero, izenburuen bi zatiak elkartu behar dituzue ezkerreko zutabekoak eskuineko zutabekoekin lotuz.

- Hotza eta elurra ere bai, Euskal Herriko toki garaietan,

- Granadako ultrek Andaluziako herria

- Nazio batuko idazkariak dio; dirua bai behar duela Irakek,

- Australiako bi diputatu berdek

- Pello Lizarralderentzat Euskadi Literatura Saria

- Euskararen aldeko ametsak aurrera jarrai dezan beharrezko euro-zaparrada

Haur eta gazte literaturako saridun, Fernando Morillo

Bushen diskurtsoa eten dute Parlamentuan

etengabea izan dadin kanpaina berria mar-txan Irunberriko Arangoiti ikastolan

ez dutela ordezkatzeko esan du Ibarretxek

Ibañetako mendatean ikus daitekeen moduan

baina, segurtasuna ere nahitaezkoa dutela bertako herritan

Orain bi taldetan banatu, eta galderi erantzun zuzena aukeratu.

A taldearentzat

1. Hotza eta elurra non ikus daitezke gaur?
 - a. Euskal Herriko Ibañeta ibarrean
 - b. Euskal Herriko mendixketan
 - c. Euskal Herriko Ibañeta mendatean
2. Nongo herria ez dute ordezkatzten Granadako ultrek?
 - a. Andaluziakoa
 - b. Granadakoa
 - c. Andaluziako Granadakoa
3. Zer behar du Irakek Nazio Batuko idazkariaren esanetan?
 - a. Dirurik ez, baina segurtasuna nahitaezkoa du
 - b. Dirua behar du, batez ere, eta segurtasuna ere ondo etorriko zaio
 - c. Dirua behar du, baina segurtasuna ere nahitaezkoa du
4. Nortzuk eten dute Bushen diskurtsoa?
 - a. Australiako bi diplomatiko berdek
 - b. Australiako bi diputatu berdek
 - c. Australiako bi parlamentari berdek
5. Norentzat da Literatura Saria?
 - a. Pello Lizarralderentzat
 - b. Pello Morillorentzat
 - c. Fernando Lizarralderentzat
6. Euskararen aldeko ametsak jarrai dezan zer da beharreko?
 - a. Euri-zaparrada
 - b. Euro-zaparrada
 - c. Euro-zaparrasta

B taldearentzat

1. Zer ikus daiteke Euskal Herriko toki garaietan?
 - a. elurra bai, baina hotza ez
 - b. elurra bai eta hotza ere bai
 - c. elurra bai eta kazkabarra ere bai
2. Nortzuk ez dute ordezkatzten Andaluziako herria?
 - a. Granadako sozialistek
 - b. Granadako ultrek
 - c. Granadako komunistek
3. Nork esan du zer behar duen Irakek
 - a. Nazio Batuko zuzendariak
 - b. Nazio Batuko idazkariak
 - c. Nazio Batuko lehendakariak
4. Zer egin dute Australiako bi diputatu berdek?
 - a. Bushen diskurtsoa eten
 - b. Bushen diskurtsoa txalotu
 - c. Bushen bazkaria eten
5. Zer sari lortu du Fernando Morillok?
 - a. Euskadiko Helduen Literaturakoa
 - b. Espainiako Haur eta Gazte Literaturakoa
 - c. Euskadiko Haur eta Gazte Literaturakoa
6. Nongo ikastolak behar du euro-zaparrada?
 - a. Irunberriko Arangoiti ikastolak
 - b. Arangoitiko Irunberri ikastolak
 - c. Irunberriko Ibargoiti ikastolak

- Jarraian, talde bakoitzak izenburu bat aukeratu, eta albiste osoa ahoz kontatzeko prestatu behar duzue. Gero, binaka jarrita, (talde bakoitzeko bana) elkarri kontatuko diozue.

ATAZA: IRAKURBERRIAK



1

- Nondik hasten zara egunkaria irakurtzen, lehenengo orritik ala atzekotik? Badirudi gero eta jende gehiago dagoela egunkaria atzekoz aurrera irakurtzeko ohitura daukana. Hitz egin beste ikaskideekin, ea beraiek nondik hasteko ohitura duten.

INKESTA:

- Zenbatek irakurtzen dute lehenengo orritik hasita?
- Zenbatek irakurtzen dute azkeneko orritik hasita?
- Zenbatek irakurtzen dute egunkaria osorik?
- Zenbatek irakurtzen dituzte lehenengo orriko izenburuak, soilik?



- Egunkari batean atal ezberdinak izaten dira, eta bakoitzean albiste-mota ezberdinak jasotzen dira. Binaka jarrita, bila itzazue atal horien izenak ondoko letra-zopa honetan.

M	A	R	U	T	L	U	K	L	E
E	B	G	T	Z	O	L	I	R	K
A	A	X	E	I	B	U	R	T	O
K	E	A	R	N	E	T	O	Z	N
I	T	Z	U	L	D	A	L	I	O
T	R	E	N	D	I	A	A	P	M
I	A	M	G	O	N	D	N	A	I
L	Z	A	B	A	L	U	N	E	A
O	I	L	A	R	K	N	M	S	G
P	G	A	I	Z	T	I	R	I	U

ZEINTZUK DIRA EGUNKARIAREN ATALAK?

Pertsona bat behar dugu goizero bost orduz

Jarraian, hemen dituzue egunkariko izenburu batzuk, ea lotzen dituzuen aurreko atalekin.

IZENBURUAK

- 1- Ibarretxeren planak konponbiderako osagaiak ditu, baina ez da ekuazio ona
- 2- AEBetako enbaxadako hiru kide hil dituzte Gazan, bonba batekin
- 3- Euskaltelek hurrengo urtean abian jarriko du telebista interaktiboa
- 4- Amoranteak etxeko atarian utzi behar dira, interesgarriak dira eguneroko bizitzan sartzeko
- 5- Saillkapen buruan jarraitzen du TAUK, Etsa taldea menpean hartu ondoren
- 6- Oteiza museoa nahaste-borrastea da: ez da ikusten nola hasi den, zein urrats egin dituen, nola iritsi den iritsi den lekura
- 7- Georges Bizeten "Carmen" ezagunak lau saio izango ditu Euskaldunan
- 8- Karol Wojtyla Aita Santuaren jarduerak argiak baino ilunak gehiago ditu

EGUNKARIKO ATALAK

- Iritzia
- Agenda
- Kirola
- Mundua
- Kultura
- Politika
- Gizartea
- Ekonomia

Egunkariko albisteetatik zein da interesgarriena zuretzat? Eta zure ikaskideentzat? Zergatik?



2

- Orain txapelketa bat egingo dugu: ea nork idazten duen izenbururik laburrena. Irakurri ondoko albistea, eta bere esanahia ahalik eta ongien mantentzen duen izenburu bat aurkitu behar diozu.

Albistea: Ilargiko lurak saltzea du helburu Lunar Relaty enpresak, eta, herenegun, bulego berri bat zabaldu zuen Melbourne-n, Australiako hirian. Ilargiaren zati baten jabe izan nahi duten australiarrek 34 euro inguru ordaindu beharko dituzte lau hektarea eskuratzeko. Enpresaren jabe Paul Jacksonek australiarrei Ilargiko lurak saltzeko baimena lortu zuen Denis Hope estatubatuarraren bidez. Nazio Batuen Erakundeak Ilargiko lurren jabe izateko egindako debekua soilik estatuei zuzenduta zegoela konturatu zen Hope; eta hala, AEBetako epaitegi batean, Ilargia jabego gisa esleitzea lortu zuen. Ondoren, Ilargia 3.122.002 zatitan banatu zuen, eta saltzeari ekin zion. Jadanik, 180 herrialdetako bi milioi lagunek erosi dute Ilargiaren lur-zati bat. Iaz Zelanda Berriko bulegoa zabaldu zenetik, 2.000 lursail saldu dituzte; gehienek oparitzeko xedez erosten omen dituzte Ilargi-zatiak.

Albistearen izenburua:

.....

- Nork idatzi du izenburu laburrena? Balora ezazu: albistearen esanahia edo mezua mantendu da? Hala ez bada, ez da ontzat hartuko.
- Hemen dituzun hitz hauek lehen ikusitako izenburuetan dute beren sinonimoa, ea asmatzen duzun zein den bakoitzari dagokiona:

- 1- irtenbide =
- 2- lehergailu =
- 3- ipini =
- 4- maitale =
- 5- menperatu =
- 6- nahaspila =
- 7- ospetsua =
- 8- itzala =

- Izenburuetako hitzak haizeak eraman ditu, zuk idatzi beharko dituzu.

IZENBURUAK

1. Ibarretxeren planak osagaiak ditu, baina ez da ekuazio ona
2. AEBetako enbaxadako hiru kide hil dituzte Gazan, batekin
3. Euskaltelek hurrengo urtean abian du telebista interaktiboa
4. etxeko atarian utzi behar dira, interesgarriak dira eguneroko bizitzan sartzeko
5. Sailkapen buruan jarraitzen du TAUk, Etosa taldea ondoren
6. Oteiza museoa da: ez da ikusten nola hasi den, zein urrats egin dituen, nola iritsi den iritsi den lekura
7. Georges Bizeten “Carmen” lau saio izango ditu Euskaldunan
8. Karol Wojtyla Aita Santuaren jarduerak argiak baino gehiago ditu

- Orain, buruan geratu zaizkizun hitzekin azpian zerrenda bat egin, ea zenbat ikasi dituzun!

HIZTEGIA

.....,,,,,

ATAZA: NON, BERRIA?



1


- Datorren asteburuko plana egin nahi duzu, eta ETB1n AGENDAk zer proposatzen duen jakin nahi duzu. Zein programa ikusi beharko zenuke horretarako? Aukeratu ondoren ematen zaizkizun programen artean.

INKESTA:

- - Gaur egun
 - Sautrela
 - Sorginen Laratza
 - Goenkale
 - Bertatik Bertara
 - Betizu
 - ...
- Ikusten al duzu *Bertatik Bertara* programa ETB1en?
 - Bai, beti
 - Ez, inoiz ez
 - Bai, noizean behin
- Noiz izaten da programa hau?
 - Asteleheneretik ostiralera
 - Asteburuetan
 - Ostegunetan



- Agenda noiz ikus daiteke programa honetan?
 - Asteleheneretik ostiralera
 - Ostiraletan bakarrik
 - Larunbatetan
- Zein hizkuntza erabiltzen da programa honetan?
 - Euskara, soilik
 - Euskara eta gaztelania
 - Euskara eta frantsesa
 - Gaztelania, soilik
- Ondoren, Bertatik Bertarako Agenda ikusiko duzue.
- Agendan zer aipatu da? X batez markatu zerrendan.
 - *Joana la loca*-ren koreografia
 - Udallerri Euskaldunen jaia
 - Folk musika emanaldia
 - Mecano-ren kontzertua
 - Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Golden Apple Cuarter-en emanaldia
 - Lazkao Txikiren antologia bertsotan
 - Gazta txapelketa
 - Musika kontzertua
 - Atharratzeko kantariak, bertsolariak, eta abar
 - Baserriko antzinako tresna eta lanabesen erakusketa
 - Betizurekin haur jolasen txokoa
 - Eskola Txikien jaia
 - Haur kantu txapelketaren finala
- Orain, bi talde egingo dituzue: A taldea eta B taldea. Bideoa entzungo dugu (*Bertatik Bertara* programako agenda) eta ondoren, informazioa atera eta taula bete informazioarekin. A taldeak, NOIZ zutabea beteko du, eta B taldeak NON zutabea.



ZER	NOIZ (A taldea)	NON (B taldea)
<ul style="list-style-type: none"> - Folk musika emanaldia - Udallerri Euskaldunen jaia - <i>Juana la loca</i>-ren koreografia - Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Golden Apple Cuarter - Haur kantu txapelketaren finala - Atharratzeko kantariak, bertsolariak, ... - Baserriko antzinako tresnen eta lanabesen erakusketa - Eskola Txikien jaia - Musika kontzertua 		

- Jarraian, bi taldeko lagunak nahastu eta bikoteak egin. Binaka, galderak egin eta agendaren informazioa eskatu, taulan falta den informazioa bete arte.

NOLA EGIN GALDERAK:

Adibidez:

- 1- A taldeko lagunak B taldeko lagunari:
Folk musikaren emanaldia non da?
- 2- B taldeko lagunak A taldeko lagunari:
Folk musikaren emanaldia noiz da?



- Zure lagunak eman dizun informazioa taulan idatzi.
- Hemen duzu agendan agertu den informazio guztia. Taulako informazioarekin adibideko esaldiaren parekoak sortu.

ZER	EGUNA	ORDUA	HERRIA	LEKUA
Folk musika emanaldia	Gaur	Arratsaldeko 20:00etan	Seguran	Arrixaga etxean
Udaleri Euskaldunen jaia	Igandean	Arbizun
Juana la locaren koreografia	Gaur	Gaueko 22:00etan	Gasteizen	Mendizorroztzako kiroldegian
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Golden Apple Cuarter	Gaur	Arratsaldeko 20:30ean	Gasteizen	Printzipal antzokian
Haur kantu txapelketaren finala	Larunbatean	Hernanin
Atharratzeko kantariak, bertsolariak,...	Larunbatean	Gaueko 22:30ean	Urretxun	Gernikako arbola plazan
Baserriko antzinako tresnen eta lanabesen erakusketa	Asteburu honetan	Zegaman	Pilotalekuan
Eskola Txikien jaia	Datorren igandean	Goizeko 10:00etan hasita	Bergaran	Angiozar auzoan
Musika kontzertua	Bihar, larunbata 9	Lekeitio


Adibidea:

Eskola Txikien jaia datorren igandean, goizeko hamarretan hasita, Bergarako Angiozar auzoan izango da.



2

- Jarraian, binaka elkarrizketa bat osatuko duzue. Elkarrizketan, agendako informazioa eman eta eskatuko duzue. Irakurri ondoko egoera eta gidoia. Lagungarri izango zaizkizu.



- Agendako zein ekintza gustatu zaizu gehien? Eta gutxien? Puntuatu 1etik 5era.

- | | |
|--|--|
| - Folk musika emanaldia | - Atharratzeko kantariak, bertsolariak, ... |
| - Udalerrri Euskaldunen jaia | - Baserriko antzinako tresnen eta lanabesen erakusketa |
| - Juana la loca-ren koreografia | - Eskola Txikien jaia |
| - Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Golden Apple Cuarter | - Musika kontzertua |
| - Haur kantu txapelketaren finala | |

- Bukatzeko, hitz egin erantzunei buruz denon artean.

- Zeinek izan du puntu gehien?
- Zeinek izan du puntu gutxien?

ATAZA: AZOKA TXIKIA



- Iragarkiak irakurri eta ondoko taulan bereizi; alde batean eskaintzak direnak, eta bestean eskaerak. Zutabe bakoitzean iragarkiari dagokion zenbakia jartzea nahikoa da.

IRAGARKIAK

1. Ez duzue izango Mac klasikoetako baten bat soberan, ezta? Izugarri gustura hartuko nuke Macintosh 128, edo 256, edo Mac Classic, edo Macintosh SEren bat ... Seguru nago baten batek horrelakoren bat izan behar duela hautsa pilatzen... Hori bai, ondo dabilen bat nahi dut, noski. Gaez deitu: 943 141 215
2. Etxebizitza salgai Itsasondon. 3 logela, sukaldea eta bainua. Tel. 689 650 850
3. Pisu bat behar dugu Deustun edo inguruan uztaileta arte. 945 251 487 edo 696 212 155
4. Artzain-txakur aleman baten txakurkumeak salgai, pedigria dutenak dira. 696057346
5. ISA txartel grafikoa behar dut, norbaitek baldin badauka trukeren bat egingo genuke. 944 121 212
6. Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Estrekin. SS-AD. Asier. 943 800 384. Gaez deitu.
7. Pertsona bat behar dugu goizero bost orduz etxeko lanak egiteko. Autoduna nahiago.
8. Eskualdeko erretratu zaharrak eskuratuko genituzke liburu bat osatzeko. 943 000 073
9. Etxebizitza alokatuko nuke Larrea auzoan. 668 659 059
10. Pigini akordeoi botoiduna (ia berria) salgai. 943465724

Eskaintzak

Eskaerak

- Esaldiak lotu irakurritako iragarkiak kontuan hartuta.



- Macintosh 128, edo, Mac... Classic, edo Macintosh SEren bat...

- Etxebizitza salgai Itsasondon...

- Pisu bat behar dugu Deustun...

- Artzain-txakur aleman baten...

- ISA txartel grafikoa behar dut...

- Volkswagen Golf GTI 16 V...

- Gasteizen pertsona bat behar dugu goizero...

- Eskualdeko erretratu zaharrak...

- Etxebizitza alokatuko nuke...

- Pigini akordeoi botoiduna...

- ...trukeren bat egingo genuke...

- ...eskuratuko genituzke...

- ...bost orduz etxeko lanak egiteko...

- ...salgai, estrekin. SS-AD...

- ...edo inguruan...

- ...3 logela, sukaldea eta bainua...

- ...la berria salgai...

- txakurkumeak salgai...

- ...ondo dabilen bat nahi dut, noski...

- ...Berastegin. Larrea...

- ...pedigria dutenak dira. 696 057 346

- ...Asier. 943 800 384. Gauzez deitu

- ...auzoan. 668 659 059

- ...Liburu bat osatzeko. 943 000 073

- ...Autoduna nahiago. 948 73 21 68

- ...gauzez deitu: 943 141 215

- ...943 465 724

- ...tel.: 689 650 850

- ...uztailera arte – 945 251 487 edo 696 212 155

- ...944 121 212

- Salerosketa iragarkien inguruko galdera hauei erantzuna eman bikoteka.

- Deustun zer behar da? Noiz arte?



- Iragarkietan ba al dago txakurrik salgai? Nolakoa? Nora deitu behar da informazio gehiago lortzeko?

- Itsasondon salgai dagoen etxebizitza nolakoa da? Zenbat gela ditu?

- Etxebizitza bat alokairuan, non behar da?

- Gasteizen zertarako behar da pertsona bat?

- Nork egingo luke trukeren bat?

- Pagini akordeoi botoiduna zein egoeratan dago? Zaharkitua al dago?

- Nork du salgai Volkswagen Golf-a? Noiz deitu behar zaio?

- Jarraian, iragarki bat idatzi behar duzu. Zure iragarkia idazteko pentsatu zer nahiago duzun: zerbait saldu ala erosi. Bururatu ahala idatzi ondoko aukeren aldamenean. Ea lau bururatzen zaizkizun!

Zer eskainiko/hartuko zenuke dohainik

1 →

Zer eskainiko/hartuko zenuke trukean

2 →

3 ←

Zer salduko/erosiko zenuke nahikoa merke

4 ←

Zer salduko/erosiko zenuke garesti samar



- Gehien gustatu zaizun aukera iragarki bilakatu, horretarako laguntza gisa dituzun baliabideak aprobeztatu.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

LAGUNTZA

- behar da
- salgai/erosiko nuke
- egoera onean
- eskaintzen da
- eurotan

- Idatzi dituzuen iragarkiak arbelean jarriko ditu irakasleak bi zutabetan bereiztuz: eskariak batetik, eta eskaintzak bestetik.

- Denen artean iragarki onena aukeratuko dugu, eta euskaltegiko iragarki-taulan ipiniko da.

AUTOEBALUAZIO-ORRIA

1. Ikastunitate honetan egindako lanen bitartez, egunkariko eta aldizkaritako atal desberdinak euskaraz irakurri ahal izan dituzu. Zer moduz moldatu zara?
 - a. Nahikoa ongi ulertu ditut.
 - b. Ez da hain erraza ulertzen.
 - c. Ez dut batere ulertu.Zergatik?

2. ETB1ko programa batzuk ere ikusi ahal izan dituzu. Zer moduz moldatu zara?
 - a. Nahikoa ongi ulertu ditut.
 - b. Ez da hain erraza ulertzen.
 - c. Ez dut batere ulertu.Zergatik?

3. Zer kostatu zaizu gehien ikastunitate honetan:
 - a. Zeuk idaztea
 - b. Ulertzea
 - c. Beste ikaskideekin aritzea
 - d. Albistea kontatzeaZergatik?

4. Zer egin duzu erraz eta gustura?
Zehaztu zer:
Zergatik?:

OHARRAK

A large yellow rectangular area containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page, providing a guide for handwriting practice.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ISBN: 84-95827-67-0



9 788495 827678